

EGIN

► USURBIL

Sagardoaren kultura ezagutaraziz

■ Sagardo Egunaren antolatzaileek eta Udalak erakusketa bat prestatu dute. ■ Edariaren prozesua eta hiztegi berezia lantzen da.

Sagardo Egunaren antolatzaile eta Udalaren arteko elkarlanaren fruitua da edari honen inguruko hainbat prozesu eta lanbide jasotzen dituen erakusketa, datorren maiatzaren 22an ikusgai izango dena. Gainera, inguruko herrietara ere zabaldu nahi da lan hau.

X. ARAMENDI

Sagardo Egunaren antolatzaileek azaldu zuten «sagardoaren jatorria gogoratu nahi izan dugu. Herriko etxe guztietan daude tola-reak eta nortasuna berreskuratzeko asmoa genuen».

Herriko talde hau duela 13 urte hasi zen sagarra eta sagardoaren mundua jorratzen eta epe honetan hainbat ekitaldi antolatu dituzte, ihardunaldiak eta feriak tartean, eta azkenean Sagardoaren Egunaren antolaketa etorri zen, arrakasta handia lortu duelarik herritarren artean.

Erakusketan lau gai nagusi aztertzen dira eta prozesu bakoitza panelen bidez adierazten da, argazkiak eta testuak elkarrekin doazelarik. Honez gain, diapositibak ere prestatu dira, testuak aparteko orri batean idatzita.

«Sagarrondotik sagarrera» izenekoa da lehenengo atala eta bertan fruituaren garapena erakusten da, sagarrondoaren loretik hasi eta fruituan amaitu arte.

Aintzinako prozesua

Honekin batera, «aintzinako sagardogintza naturala» jorratzen da, sagarretik kupelarrainoko prozesua esplikatuz. Atal honetan baserrian egin izan ohi den eran erakusten da, eskuzko tola-



Sagardoza lotzeko alanbiketan destilatu beharra dago.

J. GALLEGO

reak eta aintzinako tresneria erabiliz.

Hirugarren atala «Sagardogintza naturala, prozesu industrialari dagokiona da eta oraingoan prozesu industrialak agertzen da tola hidraulikoak eta nola boteilaratzen den adieraziz.

Azkenik, azken urteotan ezaguna egiten ari den sagardoaren prestakuntza ikusi ahal izango da. Sagardoaren destilaziotik edari hau nola lortzen den esplikatzen da.

Panel guzti hauek sagardogintzaren hiztegi berezia azpimarratzen da, letra beltzez, ikusleek tola-reak, sagarra jo eta antzeko terminuak ikas ditzaten.

Material guzti hau Udalaren esku geratuko da eta momentuz

udal liburutegian dago gordeta. Beste herrietako ikastetxe edo kultur etxeetakoek interesa badute liburuzainarekin harremanetan jarri beharko dute 37 19 51 telefono zenbakian. Ordu-egia arratsaldeko 4etatik 7etara da.

Dagoeneko aurrera doaz hilaren 22an ospatuko den Sagardo Egunaren inguruko prestakizunak. Joxe Mari Altuna, alkatearen esanetan «aurtengoan ere herri guztia inplikatuko da egunaren antolaketa lanean, eta horrez gain urte osoan elkarte lana bultzatzen da». Azkenik, esan, aurtengoan 45-50 sagardo postu jarriko direla eta arrakasta handia izatea espero dela.